

ESKALADA tailerra

Eibarko Udalak eskalada inguruko tailerra antolatu du kirol ikusgarri honetan murgiltzeko.

Tramitatzailea: Haurreria eta Gazteria.

Hartzaileak: LH 3. eta 6. mailakoentzat.

Ikastaroaren prezioa:

- **5€** (Eibarren erroldatuak).
- **10€** (Eibartik kanpokoak).

Ikastaroaren ordainketa: Matrikula ordainketa bakar batean kobratuko da, erreziboa helbideratuta.

Eskaera egiteko tokia:

- **Elektronikoki,** udal webgunetik: www.eibar.eus
Tramitea elektronikoki egiteko ziurtagiri digital bat (B@K-Q, NAN elektronikoa, IZENPE txartela, etab.) edukitzea beharrezkoa da.
- **Presentzialki,** PEGORA, Herriarren Zerbitzurako Bulegoa.

Nork emango du: GIPUZKOAKO MENDIZALE FEDERAZIOA.

Non: Ipurua Kiroldegian.

Datak: martxoak 1, 8, 15 eta 22.

Ordutegiak:

Txanda 1: 16:45etik 18:15era.

Txanda 2: 18:15etik 19:45era.

Egun eta txanda bakarra aukeratu beharko da.

Ikasle kopurua: gutxienez 4 ikasle ikastaroa burutzeko eta gehienez 6 ikasle.

Ikastaroaren hizkuntza: euskara.

Eskaera egiteko epea: otsailaren 17tik 24ra.

Ezarritako ikasle kopurua gainditzen bada, urtarileko eta/edo otsaileko eskalada tailerrean onartuak izan diren ikasleak automatikoki zerrendatik kanpo geldituko dira, zozketan parte hartzeko aukerarik izan gabe.

Aurkeztu beharreko agiriak:

- **“IKASTAROAK: MATRIKULA ORRIA”** izeneko inprimakia behar bezala beteta (PEGORAn eta udal web orrian, <https://www.eibar.eus/eu/tramiteak/ikastaroak-lehiaketak-sariketak> eskuragarri).
- Tutoreen kasuan, tutoretza egiaztatzen duen dokumentazioa.

Matrikulazioa presentzialki egiten bada, nortasun agiri nazionala aurkeztu beharko da emandako datuak egiaztatzeko.

Kudeaketa arauak:

Izena eman duten pertsonen kopurua ez bada heltzen ikastaroa emateko ezarritako gutxieneko ikasle-kopurura, ez da ikastarorik egingo. Abisua udalaren web orrian emango da (www.eibar.eus), 2020ko **otsailaren 27an**.

Izena eman duten pertsonen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada, matrikula guztiak onartuko dira.

Matrikularako izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, ikasleen aukeraketa zozketa bidez egingo da. **Zozketa Portalean egingo da.** Hona hemen zozketa-eguna eta ordua: **otsailaren 27an 10:00etan**. Zozketa era honetan egingo da:

- Zozketa egin aurretik ikastarorako izena eman duten pertsona guztiekin zerrenda bat egingo da alfabetoaren arabera ordenatuta; bakoitzari zenbaki bat emango zaio.
- Zaku batean sartuko dira zenbaki guztiak eta zenbaki bakar bat aterako da.
- Aukeratuko diren pertsonak zenbaki horretatik hasita ondoren datozenak izango dira, plaza guztiak bete arte.

Onartu diren pertsonen izenekin zerrenda bat egingo da. Zerrenda hori PEGORAn eta udalaren webgunean (www.eibar.eus), egongo da **otsailaren 27an, 12:00etatik** aurrera. Zerrenda hori argitara ematen den unean sortzen da matrikularen zenbatekoa ordaintzeko obligazioa. Ikastaroa utzi edo ikastaroan baja ematen duen pertsonak ez du izango matrikularen zati proportzionala jasotzeko eskubiderik.

Oharrak: talde batean izena emandakoen kopuruak ezarritako gutxieneko ikasle-kopurua gainditzen badu eta ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa ez bada eta beste taldeetan izena eman dutenen kopurua ezarritako gehieneko ikasle-kopurutik gorakoa bada, aurreneko taldea beste taldeko ikasleek osatu ahal izango da zozketak emandako emaitzari atxikitzuz eta ikastaroa jasoko duten ikasleen adin bereko taldeari lehentasuna emanez.

Hala ere, plazak libre geratzen badira, aurreko hilabeteetan tailerra egin dutelako kanpoan geratu diren haurrek bete ahal izango dituzte plaza hauek. Horretarako, otsailaren 27an goizeko 10:00etan zozketa bat burutuko da aurreko hilabeteetan (urtarrila eta otsaila) parte hartu eta hilabete honetan izena eman dutenen artean. Kasu horretan, ez da kontuan hartuko eskaera orrian ezarritako eguna eta ordua.

Informazio gehiago: 943 708 435 telefonoan

